

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARAMAIOKO UDALA

2025 urterako udal zergak eta tasak arautzen dituzten ordenantza fiskalak arautzen dituen ordenantzaren aldaketa. Behin betiko onarpena

Aramaioko Udalbatzak, 2024ko urriaren 31ko osoko bilkuran, hasierako onarpena eman zion 2025 urterako udal zergak eta tasak arautzen dituzten ordenantza fiskalak arautzen dituen ordenantzaren aldaketari. Iragarki hori 2024ko azaroaren 8ko ALHAOn (127 zk.) argitaratu zen. Haien aurkako erreklamazioak aurkezteko epea bukatuta, erreklamaziorik aurkeztu ez denez, erabaki hori behin betiko bihurtzen da, halaxe xedatzen baitu apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, toki araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 49. artikuluan. Horrela, bada, 7/1985 Legeak 70.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, ordenantzen testua argitaratzen da.

Behin betiko onespeneraren kontra, administrazio bidea agortzen baitu, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Euskal Herriko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, iragarki hau argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera, egokitzen jotzen den beste edozein errekurtso gorabehera.

Zerga eta tasa ordenantza hauek 2025ko urtarrilaren 1ean sartuko dira indarrean. Hona hemen zerga eta tasa ordenantzetan egindako aldaketak hitzez hitz:

HIRI HONDAKIN SOLIDOAK BILDU ETA ERAMATEKO ZERBITZUA ARAUTZEN DUEN ZERGA ORDENANTZA

Kontzeptu guztiek ehuneko 30eko igoera jasaten dute.

KONTZEPTUA	EGUNERATUTAKO ZENBATEKOA (EUR.)
Etxebizitzak	124,50
Lokal profesionalak	186,76
Merkataritza, landetxe, tailer mekanikoak eta nekazal ustiategiak	249,00
Elkarte gastronomiko, taberna, jatetxe eta hotelak	311,26
Industria eta hezkuntza zentroa	435,70

URAREN ZIKLO INTEGRALAREN ZERBITZUA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA ZERBITZUAREN PREZIOAK

URA (ADUKZIOA, TRATAMENDUA ETA BANAKETA) URTRATATUA.

Prezioak B. E. Z. gabe.

Kuota finkoa. 88.1 artikulua.

Kuota kontsumoaren arabera (euro/m³). 88.2 artikulua.

KUOTA FINKOA

Kuota finkoa 15,67 eurokoa (hiruhileko) izango da.

KONTSUMO KUOTA

ETXETIARRAK, INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA NEKAZARITZARAKO.

30 m ³ arte	0,23
31etik 100 m ³ arte	0,24
100 m ³ baino gehiago	0,26

NEKAZAL ETA ABELTZAIN USTIATEGI PROFESIONALAK.

30 m ³ arte	0,17
31etik 100 m ³ arte	0,19
100 m ³ baino gehiago	0,23

OBRETARAKO.

30 m ³ arte	0,24
31etik 100 m ³ arte	0,29
100 m ³ baino gehiago	0,35

SANEAMENDUA ETA ARAZKETA.

Kuota finkoa. 89.1 artikulua.

Kuota kontsumoaren arabera (euro/m³). 89.2 artikulua.

KUOTA FINKOA

Kuota finkoa 15,02 eurokoa (hiruhileko) izango da hurrengo parrafoan aipatzen direnak ezik.

Kuota finkoa 7,51 eurokoa (hiruhileko) izango da sare orokorrera lotura ez daukaten kasuetan (udalarekin hitzarmena sinatuta duten fosa pribatuen jabeak kenduta).

KONTSUMO KUOTA

ETXETIARRAK, INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA NEKAZARITZARAKO.

30 m ³ arte	0,12
31etik 100 m ³ arte	0,13
100 m ³ baino gehiago	0,15

NEKAZAL ETA ABELTZAIN USTIATEGI PROFESIONALAK.

30 m ³ arte	0,12
31etik 100 m ³ arte	0,13
100 m ³ baino gehiago	0,15

OBRETARAKO.

30 m ³ arte	0,14
31etik 100 m ³ arte	0,16
100 m ³ baino gehiago	0,18

Aramaio, 2024ko abenduaren 23a

Alkatea

ASIER AGIRRE MUGARTZA